

# AIARALDEA *hemen*



EUSKALGINTZA:  
**Euskalgintza Kontseiluaren ia hiru urteko ibilbidearen hazi eta fruituak** 8-9 or.

KORRIKA:  
**Apirilaren 4an abiatuko da Garetik, 14an Gasteizen amaitzeko** 20 or.




## Euskaraldia, helmugara iristear

**ETA BEHIN IRITSITA, ZER?**



*Euskarak lotzen gaitu,  
elkartu, anaitu,  
gertutasuna sortu,  
tarteak amaitu  
izan nahi dugun hura  
izateko gaitu  
euskaraz egiteak  
hori lortzen baitu  
konpartitzen dugunak  
aberasten gaitu.*



**EUSKARAZ ERE,  
NATURALTASUNEZ**



Bada beste modu bat.

△  
K O T

# Merkatua

FAK  
TO-  
RIA

Azaroak 30

**16:00-20:00**

Abenduak 1

**10:00-14:00**

**16:00-20:00**

Abenduak 2

**10:00-12:00**

EUSKARALDIA DELA ETA ITXITA

**13:00-18:00**



# lekukotzak



## Hamaika egun, hamaika ikuspuntu

Iragan ostiralean hasi zen Euskaraldia eta datorren astelehenera arte -abenduak 3- luzatuko da. Aiaraldean ehunka herritar batu dira euskararen aldeko maratoira. Irailean egin zuten egitasmoa aurkezteko ekimena Laudion, eskualdeko 13 pertsonen laguntzarekin. “Aiaraldeko hamaikakoa” osatu zuten 13 bizilagun horiek. Euren bizipen eta iritziak jaso ditugu.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

“Gaztetan ez genuen euskara erabiltzen. Nire aitona Inaxiok ez zekien erdara. Nik lau seme-alaba izan nituen eta lauei irakatsi nien euskara, familiako gainontzeko kideek ez zekiten arren”. Daniela Bernaola Garcia-ren hitzak dira horiek. “Aiaraldeko hamaikakoa” taldeko kiderik nagusia da bera. Euskarari ekarpen handia egin dio, baina orain lekukoa gazteek hartu behar dutela uste du.

Basilio Garcia Maiok ere argi du: “Nik adina hartzen dut kontuan. Gazteei beti zuzentzen naitzaie euskaraz, jakin badakidalako 30 urtetik beherako pertsona gehienek ulertu gutxie-

nez egiten dutela”. Goiatz Urkijo Castañaresek, bere aldetik, “bilakaera positiboagoa” ikusten du gazteen artean, “ia gazte guztiak dakite euskaraz, erabilerara salto egin behar dugu orain”.

Bernaola Garciak ere bat egiten du gazteek euskaraz gehiago hitz egiten dutenaren iritziarekin; baina, era berean, uste du erabilera ez dela igo. “Mantendu egin dela esango nuke, baina ez oso ondo”.

“Nik familiarekin etxean euskaraz hitz egiten dut, auzokoekin ere bai. Esan daiteke nire bizitzaren zatirik handiena euskaraz egiten dudala”, azaldu du Irati Santa Cruz Lizasok. Lagunekin, baina, kasu batzuetan gaztelerara jotzen du gazte oroz-

koarrak. “Orozkoko adiskideekin hitz egiten dut euskaraz, batez ere. Baina euskaraz hitz egiten dugunekin ere batzuetan gaztelerara pasatzen gara nahigabe eta institutoan erderara gehiagotan jotzen dugu”. Okerrenzko joera bat dagoela sumatzen du orozkoarrak. “Orain ikusten dut Orozkoko Eskolako haurrak askoz lehenago hasten direla gazteleraz hitz egiten”.

Ainhize Solaunek ere euskara du ama-hizkuntza. Baina, aitortu duenez, ohitura handia du gazteleraz hitz egiteko. “Lagunekin nagoenean edo urduri jartzen naizenean erraz jotzen du gaztelerara”.

Gazteen artean egin beharreko lana “oso handia” dela uste du Leire Sanjurjo Garciak. Hala

**Gazteen artean euskara ezagutza handia dagoela uste dute elkarrizketatu gehienek, baina erabilera horren handia ez dela nabarmendu dute**

ere, Euskaraldiaren Arabako Koordinatzaileak nabarmendu du gazteak nagusitzen direnean “erabileraren gorakada” sumatzen duela, “kontzientzia hartze bat eta hausnarketa bat ematen dela uste dut”.

### Hizkuntza ohiturak irauli

Brenda Castrillok denbora asko darama Aiaraldean bizi-tzen. Soziologia ikasteko etorri zen Nikaraguatik Euskal Herrira eta euskara ikasteari ere ekin zion duela zenbait urte. “Kultura ezberdin bat da, eta interesgarria iruditu zitzaidan”, azaldu du. Hala ere, nabarmendu duenez, egunerokoan ez du euskaraz hitz egiteko aukera askorik. “Egunero saiatzen naiz euskaraz hitz egiten, baina jende as-



## lekukotzak

kok eskatzen dit gaztelera hitz egitea”.

Hizkuntza-ohiturek pisu handia dutela aitortu du Leire Sanjurjo Garcia, baina gaineratu du horiek “ohitura eta patro berriak sortuta eta errepikatuta” aldatzen direla. “Egia da testuinguru erdaldun batean bizi garela. Niri, familia erdalduna izanda, esamoldeak errazago ateratzen zaizkit gaztelera”.

## Lan munduan erronka

Andima Landaluzeren Euskaraldiko erronka, aldiz, bere lankideekin euskaraz hitz egiten saiatzea izango da. “Normalean lanean gaudenean ez dugu euskaraz hitz egiten, orohar”. Inñaki Moskosok ere antzeko arazoa sumatzen du. “Lantegian euskaraz hitz egitea pixka bat zailagoa da, ‘hasiera’ moduko bat behar da, edo inflexio-puntu bat zeinetan lankidearekin euskaraz hitz egitera pasatzen zaren”.

“Askotan ez dakigu delegatuen hizkuntza euskara dela”, azaldu du ELA sindikatuko kidea den Itziar Larrazabalek,

“hori izan behar da gure erronka: euskaraz dakiten afiliatuekin hizkuntza horretan hitz egitera pasatzea”.

## Lantegi eta enpresetako hizkuntza ohiturak aldatzea da Aiaraldeko ahobizi eta belarriprest batzuek Euskaraldirako hartu duten erronka

## Alde egotetik alde egitera

“Euskararen alde egotetik euskararen alde egitera pasatzea” da Euskaraldiaren helburua, Goiatz Urkijo Castañaresen esanetan. “Testuinguru oso erdal-

dunean bizi gara, eta eguneroko harremanek gaztelera hitz egitera bultzatzen gaituzte”, gaineratu du Leire Sanjurjo Garcia.

Horregatik, ahobizi edo belarripresten txapa soinean eramateak berebiziko garrantzia duela uste du audioarrak. “Gauza txikia dirudi, baina iaz niri asko lagundu zidan eta egun saltoki eta tabernetan askoz gehiago erabiltzen dut euskara”. Txapa izateak “lehen pausoa ematera derrigortzeko” balio duelakoan dago Irati Santa Cruz Lizasok, “behartzen zaitu lehen hitza behintzat euskaraz egitera”.

Inñaki Moskosorentzat, aldiz, “kopeta izatean” dago gakoa. “Une batetik bestera euskaraz hitz egitera pasa, eta aurrera”. “Militantzia izaera” bebizikoa dela uste du Raul Urkijo Allende, “beharrezkoa da euskararekiko zeozer sentitzea”. “Euskal Herria aberri txiki bat da, eta bere hizkuntza propioa du, sustatu egin behar dena”, gaineratu du Edu Saiz Ruiz de Olizagak.

Xabier Santxotena, bere aldetik, adierazi du euskara “in-



**Ainhize Solaun Mendiguren**

Ahobizia

*“Euskara dut ama hizkuntza, baina ohitura handia dut gaztelera hitz egiteko. Lagunekin nagoenean edo urduri jartzen naizenean erraz aldatzen dut hizkuntza”*



**Leire Sanjurjo Garcia**

Ahobizia

*“Egia da hizkuntza-ohiturek pisu handia dutela egunerokoan, baina egia da baita ere ohitura horiek berriak sortuz eta errepikatuz aldatzen direla”*



**Irati Santa Cruz Lizaso**

Ahobizia

*“Uste dut orain haurrak lehanago hasten direla gaztelera hitz egiten euren artean”*



**Daniela Bernaola Garcia**

Ahobizia

*“Lau seme-alaba ditut eta lauei irakatsi nien euskara, nire familiak ez zekien arren”*



**Goiatz Urkijo Castañares**

Ahobizia

*“Euskararen alde egotetik euskararen alde egitera pasatzean datza Euskaraldia”*

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

# MARKET AMURRIO

**3x2 Arropa eta oinetakoetan**  
**2x1 Lurrinetan**

ZANKUETA POLIGONOA, AMURRIO (GASOLINDEGI ONDOAN)

9:30etik 21:00ak arte

**Sorpresa!**  
- O P A R I A K -

MEZUDUN OPARIK EUSKARAZ

www.sorpresa.eus  
/sorpresaopariak  
945 89 08 46  
ADIGRAFIK  
Maskuribai ind. Z-10  
Amurrio (Araba)



# Iekukotzak

dartu" behar dela eta jendeari "apur bat behartu" behar zaio-la hizkuntza erabiltzera, "agurak soilik euskaraz egitea bada zerbait".

## Ikuspegi kritikoa

Andima Landaluzek, aldiz, bestelako ikuspegia du. "Nik nahiko sentsazio gazi-goza dut Euskaraldiarekin", azaldu du urduñarrak, "positiboa ikusten du erabileran eragitea, baina aurretik ikusi dugu jarraera eta konpromiso pertsonaletan oinarritutako ekimenek zenbaterainoko eragina daukaten". Bere iritziz, euskararen normalizaioak "maila guztietan" eragin beharko luke, "bai politikoki, baita kalean ere". "Euskaraldia egiten dugu, de-

**Badaude Euskaraldia ekimenarekiko kritiko azaldu diren euskaldunak. Bestelako konpromiso eta eragin eremuak beharrezkoak direla aldarrikatu dute**

nentzako tokia duen eta guztiontzako onugarria den ospakizuna; baina gero ez dakit horrek zer eragin duen".

Landaluze ez da Euskaraldiarekiko kritiko agertu den pertsona bakarra. Aiaraldetik kanpo ere plazaratu dira antzeko hausnarketak. Amets Arzallusek ETBn eginikoa da agian zeresan handiena sortu duena. "Orain denak daude euskararen alde, baita bere heriotza diseinatu eta praktikatu zutenak ere", adierazi zuen bertsolariak telebistan.

Bere ustetan, "Euskaraldiak zentzua eta indarra hartuko badu hamabigarren egunean izango da hori, hamaika egunak igarota aldaketarik sumatzen baldin bada".



**Brenda Castrillo**

Belarripresta

**"Jende askok eskatzen dit gaztelera hitz egitea"**



**Xabier Santxotena**

Ahobizia

**"Jendeari euskaraz aritzera apur bat behartu behar zaio"**



**Andima Landaluze**

Ahobizia

**"Sentsazio gazi-goza sortzen dizkit Euskaraldiak"**



**Iñaki Moskoso**

Belarripresta

**"Kopeta izatea garrantzitsua da euskaraz mintzatzeko"**



**Itziar Larrazabal**

Ahobizia

**"Hamaika eguneko aukera paregabea dugu aurretik"**



**Raul Urkijo Allende**

Belarripresta

**"Euskaraz hitz egiteak badu militantzia puntu bat"**



**Basilio Garcia Maio**

Ahobizia

**"Gazteei beti zuzentzen natzaie euskaraz"**



**Edu Saiz**

Belarripresta

**"Euskal herriak bere hizkuntza du, eta sustatu egin behar da"**

## LAUDIO

### AHOBIZI eta BELARRIPREST!

*Euskaraldiaren amaiera jaialdia*

OLARTE

ZUTABEA

GARDEAKO TREN GELTOKIAN  
URDUÑA, AMURRIO,  
LUIAONDO eta  
GARDEAKO herritarrak

GOIENURI

ZUTABEA

UGARTEKO PLAZAN  
OKONDO, ARTZINIEGA,  
AIARA eta UGARTEKO  
herritarrak

LARRA

ZUTABEA

LATIORROKO ZENTROEN  
PLAZAN  
LAUDIOKO herritarrak

ARETA

ZUTABEA

ARETAKO KULTURA ETXEAN  
ARRANKUDIAGA ZOLLO,  
ARAKALDO  
OROZKO eta  
ARETAKO herritarrak

**LAUDIO**  
ABENDUAK 2  
*igandea*

URDUÑA ETA AMURRIOKO MUSIKARIEKIN

ARTZINIEGAKO BUILAKA BATUKADAREKIN

LAUDIOKO TUNTTURRO ZANPANTZARREKIN

LANKAJETAKO LAGUNAK TXISTULARIEKIN, TRIKITILARIAK...

## LAUDIO UDALA

Laudioko Udalak Euskaraldiarekin bat egiten du

KONTSEILUA



publizitatea



# BIZI ZAREN LEKUAN BIZI ZARELA, NAHI DUGU GERTU EGON ZAITEZEN

Lanaz. Ikastetxeaz. Anbulatorioaz. Hiriaz.

Gure erronka da Araba osoan zerbitzu  
eta aukera berberetz goza dezazula.

araba.eus



Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Álava

*Araba da erronka | El reto es Álava*



# hezkuntza

Izan daiteke euskara hezkuntzako segregazioaren problematika konpontzeko gakoetako bat? Datuek eta esperientzia praktikoek hori iradokitzen dute. A eredu ahanzturan geratzen ari da eta D ereduaren nagusitasuna eztabaidaezina da. Testuinguru horretan, kultura ezberdinetako ikasleak batzeko tresna izan daiteke euskara.

## Euskara ikasleen arteko zubi



Lamuza Ikastetxeko ikasleek euskara komunikatzeko nola baliatzen duten aztertu zuen Esti Urresolak "Deklinabideak" dokumentalean. **Esti Urresola**



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Azken hilabeteetan zeresan handia sortu du eskola segregazioak. Urrian eztabaidatu zuten gaia Eusko Legebiltzarrean, Zubiak Eraikiz plataformak arazoari aurre egiteko proposamena eraman zuelako, 17.000 sinadurak babestuta. Zortzi neurri jasotzen zituen proposamenak, Matrikulazio prozesua bateratzea eta profil sozioekonomiko baxuena duten ikasleen ikastetxeei arreta berezia ematea tartean. Herri Eki-men Legegileak ez zuen aurrera egin, PSE, PP eta EAJk aurka bozkatu zutelako. Hala ere, eztabaida presente dago oraindik kalean eta ikasgeletan.

Eztabaida mamitsua da, adar (eta arantza) ugarikoa. Baina badago bereziki interesgarria den faktore bat: hizkuntzarena. EAEko hezkuntza sistema A, B eta D ereduaren artean banatua egoteak segregazioa sustatzen duela uste dute eragile batzuk, eta kategorizazio hori ezabatu eta murgiltze eredu ezartzea proposatu dute

(Ikastolen Elkartek kasu). Baina egon daiteke kontrako proposatu dezakeenik: euskarazko eredu mailakatuak ezabatzea, gaztelezarazko sistema bakar, handia eta askea ezartzeko.

### D ereduaren nagusitasuna

Errealitateak, baina, ahanzturan utziko luke balizko proposamen hori. Atzerrian jaiotako geroz eta haur zein gazte gehiago daude EAEko ikastetxeetan. A ereduak aldiz, beherazko joera etengabea bizi du. Sei urte eskasetan bost puntu jaitsi da Aiaraldean: 2010ean eskualdeko ikasleen %18ak baino ez zituen ikasketak gazteleraz egiten. 2016an, aldiz, %13,14koa zen ehunekoa. B eredu ere ahultzen ari da, bere jaitziera mailakatuagoa den arren.

D ereduaren aldeko hautua, aldiz, etengabe hazten ari da. 2010ean Aiaraldeko ikasleen erdiak baino gehiago (%50,67) ikasten zuten nagusiki euskaraz. 2016an, aldiz, %60,98a ziren.

Euskarak, banatu baino, komunitatea kohesionatzen duela dio-

te tokiko esperientzia praktikoek. Lamuza Ikastetxeko errealitatea da horren adibide. Kultur aniztasun handia dago eskola horretan, baina euskararen presentzia horrelako egoera batean espero zitekeena baino nabarmenagoa da. "Inpaktu handia sortzen du, etorri berriak euskara peto-petoan hitz egiten ikusten dituzunean batez ere", azaldu zuen Esti Urresolak "Deklinabideak" dokumentala plazaratu zuenean. Zinematigile audioarrak Lamuza Ikastetxean grabatu zuen 20 minutuko pelikula hori, euskarak kultura ezberdinetako ikasleen artean betetzen duen zubi funtzioa erakusteko.

Gauzak hala, ez da zorakeria pentsatzea euskara hutsezko hezkuntza dela eskualdeko ikastetxeen etorkizuna. Horregatik, euskarak ezin du izan segregazioaren arazoa bere horretan mantentzeko aitzakia. Kontrara, eraldaketarako tresna izan beharko da, kultura eta hizkuntza ezberdinen arteko zubiak eraikitze lanabesa, segregazioarekin amaitzeko gakoetako bat.

## EAEko ikasleak ereduak

Eredua	2010	2016
A	92.332 ikasle	68.888 ikasle
B	75.301 ikasle	69.608 ikasle
D	205.774 ikasle	246.991 ikasle
<b>Guztira</b>	<b>375.413 ikasle</b>	<b>387.545 ikasle</b>

Oharra: Taula honetatik kendu dira "X eredu" ikasten duten ikasleen kopuruak

## Aiaraldeko ikasleak ereduak

Eredua	2010	2016
A	1.319 ikasle	970 ikasle
B	2.133 ikasle	1.910 ikasle
D	3.546 ikasle	4.501 ikasle
<b>Guztira</b>	<b>6.998 ikasle</b>	<b>7.381 ikasle</b>



# osasuna

Osakidetzako txostenak euskaratzearekin diomediku taldebatek, osasun alorrean euskarak presentzia eta hizkuntza eskubideak bermatuta izan ditzan. Eneritz Ugarriza Lado laudioarra da lantaldeko kideetako bat.

Duela hiru urte jarri zuten abian ekimena, baina orain gehiago indartu dute, Euskaraldia probestuta. Mediku txostenak euskaratzea da erronka, arreta osoa euskaraz eskaintzeko pauso bat gehiago ematea.

## “Euskaraldiaren aitzakian, bakoitzak mediku gai bat euskaratuko du”



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Txagorritxu erietxean abiatu dute ekimena, osagileen larrialdietako alta-txostenak euskaraz jasotzeko. Eneritz Ugarriza Lado laudioarra da lantaldeko kideetako bat. Duela 3 urte elkartu ziren lehenbizikoz euskararen erabilera sustatzeko: "Euskararen falta nabaria izan da beti osasun munduan, baina barrenetik eza-gutu arte ez zara konturatzen zelako beharra dagoen egoera aldatzeko".

Larrialdi Zerbitzuetako arduradun baten babes eta proposamenarekin heldu zioten erronkari, "Euskaraldia dela eta, larrialdietako alta agiriak euskaratzearekin genion". Izan ere, askotan topatu dituzte euskaldun pazienteak: "Zerbitzu hori emateko aukera dugu langileok, baina informeak ez daude euskaratuta. Badiugu agirietarako eskema ereduak, baina erdaraz daude. Hori euskaratzeko lan pila egin behar da, terminologian aldaketa handiak daudelako, horregatik egiten dira gazteleraz".

### Euskaraldia aitzaki

Euskaraldiaren aitzakian, bakoitzak mediku gai bat euskaratzeko konpromisoa hartu du. Horri eskerrak, alta txostenak euskaraz emateko erraztasuna izango dute. Momentuz, Gasteizen gara-



Txagorritxu erietxean jarri dute abian ekimena. **Basotxerri**

tuko dute proiektua. Herritarrei norbanako gisa-bidali diete aholkularitza eta gehien zabaltzeko mezua: "Belarriprest zein Ahobizi izan, larrialdietako alta txostena euskaraz jasotzea eska zenezake. Bali-teke ere, medikuak berak aukera hau eskaintzea. Jakin ez dela beti posible izango, baina beste askotan bai. Euskaraz artatzen bagaituzte, zergatik ez alta txostena euskaraz jaso?".

Osasungintzan euskaraz dakiten profesional asko daude, baina gaztelerara jotzen dute maiz. Ugarriza Ladok Osakidetzako zenbait kartel gaizki euskaratuta daudela kritikatu du, erakundeak hizkuntzari ematen dion garrantziaren isla gisa.

Txostenak itzultzeaz gain, barne mailan ere ari dira bestelako urratsak ematen, medikuen hain-

bat lan-saio euskaraz egiteari ekin baitiete: "Medikuok bilkurak egiten ditugu astero, erien kasuak aztertzeko. Normalean erderaz izaten dira, nahiz eta zerbitzuetan euskaldunak egon. Bilerak elebitan egiteko sortu genuen taldea, astearteetan euskaraz eta ostegunetan gazteleraz egiteko. Hor ikusten da dugun prestakuntza eta baliabide falta".

Mediku egoiliarrek eratu zuten taldea: "Gure nagusiek beti gazteleraz egiten dute, baliabideak ez daude euskaraz...". Horren harira, ikasle batzuen artean lan-taldea sortzea erabaki zuten. "Mediku lan-taldeak gazteleraz zirenez, gure artekoak euskaraz antolatzea erabaki genuen".

Aurrera begira, etorkizuneko medikuek dinamikan parte hartzea espero du Ugarriza Ladok.

elkarlan  asesores  
euskaraz bizi

Aseguru bat pertsona bakoitzarentzat



Aholkularitza: Lanekoa, Fiskala, Juridikoa eta Kontabilitatekoa



Lamuza, 12 · LAUDIO  
Tel. 94 672 74 28

[www.elkarlan.eu](http://www.elkarlan.eu)

Foru Kalea, 2 · AMURRIO  
Tel. 945 39 33 51

Torre de Ugao, 12. UGAO  
Tel. 94 603 91 65

## URTEZAHAR GAUA 2018

HOTEL  
ORDUN  
PLAZA  
\*\*\*\*\*  
Balneario

Ospatu  
gurekin  
Urteberria!

- OSTATUA ETA GOSARIA + GALA AFARIA + DOAKO EDANA **179€ pertsonako**
- OSTATUA ETA GOSARIA + GALA AFARIA + DOAKO EDANA + ZIRKUITU BAT **199€**

**AFARIA + DOAKO EDANA 139€** B.E.Z. barne



# ibilbidea



## Orain arteko bidearen hazi eta fruituak

Datorren otsailean hiru urte beteko dira Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua sortu zenetik. Ibilbide motz baina emankorra egin du eragileak. Eskualdeko dinamika jarri ditu abian Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, jende andana inplikatu. Baina, horrez gain, ekimen xumeagoak eta inurri lana ere gauzatu ditu.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Ia hiru urteko ibilbidea egin du Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak. Ibilbide laburra izan da, baina baita oparoa ere. Aurretik “sukalde lan handia” egon zen arren, 2016ko otsailaren 12an sortu zen ofizialki euskararen aldeko foro hori, Aiaraldeko 42 eragileren bultzadarekin. “Sorrrera bera puntu garrantzitsua izan zen”, oroitu dute kontseiluko kideek. Horren eskualde zaballean horrelako gune bat sortzea “mirari txikia” izan zela uste dute. “Euskalgintzaren alorrean saretze lana indartzeko aukera

eman du Kontseiluak, eta hori ezinbestekoa da normalizazio prozesuan”.

Ekintza ugari egin ditu Kontseiluak hiru urtez. Euskararen Nazioarteko Egunaren harira azken bi urtetan eginiko dinamikak dira zeresan handiena sortu dutenak. 2016an Amurrión jarri zuten zita, “Aiaraldea euskaldun! Konpromisoak eta maitasuna” lemapean. Ehunka herritar bildu ziren Juan Urrutia plazan, euritakoak eskutan, “Euskararen errota” osatzeko prest.

Iaz, aldiz, “armairutik” atera ziren aiaraldearrak, hizkuntza-ohiturak aldatzeko konpro-

miso zehatzak hartuta. Ahobizi eta belarripresten figurak baliatu zituzten horretarako, Lasarte-Orian, Arrigorriagan edota Donostiako Egia auzoan egondako esperientzietan oinarrituta.

Gauzak hala, hein batean esan daiteke Aiaraldean urtebete aurreratu zela orain abian dagoen Euskaraldia kanpaina. Arrakasta handia izan zuen, gainera: 4.500 lagunek hartu zuten astebetzez euskaraz bizitzeko hautua, bakoitzak bere konpromiso-maila propioarekin. Urduñan eman zitzaion amaiera dinamikari, aurreko urteko eskema bera jarraituta: zutabeak antolatu ziren hiriaren gune ezberdinetan, eta

**42 eragileren bultzadarekin sortu zen Aiaraldeko Euskalgintza kontseilua 2016ko otsailaren 12an**

Foru plazan egin zuten topo herritar guztiek.

Inurri lan handia egon zen bi kanpainen atzean. Berebiziko garrantzia izan zuen Hezkuntza Komunitatearekin eginko lanak. Unitate didaktikoak atondu ziren eta eskualdeko ikastetxe bakoitzak bere dinamika propioa garatu zuen. Aipatzekoa da baita ere musikak eta dantzak betetako funtzioa. 2016ean eskualdeko hainbat musikariren artean sortu zuten “Euskararen errota” abestia. Iaz, aldiz, Pirritx, Porrotx eta Mari-mototsek eginiko abesti batek jarri zion soinua banda Ahobizi eta Belarripresten dinamikari.



## ibilbidea

Bi urteetan Ainhize Solaun izan zen abestien koreografia egiteaz arduratu zena. Aurten ere dantzari amurriarra arduratu da Euskaraldiaren abestiaren dantza osatzeaz.

**Bestelako dinamikak**

Hala ere, Kontseiluaren jarduna ez da egun eta kanpaina potolo horietara mugatu. Sare lan asko egin dute, bestelako dinamikak (xumeagoak baina ez horregatik garrantzi gutxiagoak) abian jarritz.

Euskararen Agenda da egitasmo horietako bat. Eskualdean euskaraz egiten diren ekintzak nabarmentzea da ekimenaren xedea. Kartel bat ateratzen dute hilero, jarduera guztien nondik norakoekin, eta posta edo telefono bidez ere bidaltzen dute. Kontseilu zabalak eta gogoeta jardunaldiak ere antolatu dituzte, eta herrietako jaietan euskararen presentzia indartzen ere ahalegindu dira, txupinazoetan agerpenak eginez.

Horrez gain, aipatzekoa da baita ere euskararen eta kirolaren arteko harremana hizpide duen ikerketa. Eskualdeko kirol-taldeekin jarri ziren harremanetan, egunerokoa zituzten hizkuntza ohituren inguruan galdetzeko. Modu horretan osatu zuten txostena.

Erakunde publikoekin "harreman egonkorra, elkarlana eta babesa" ere bilatu dituzte. Nabar-

menu dutenez, "oso emankorra" izan da udaletako euskara teknikariek egin duten lana.

**Helburuak betetzen**

Gauzak hala, eragilearen sorreran planteatutako helburuak betetzen ari dira, euren iritziz. Hala ere, argi dute Aiaraldea euskaldun bihurtzea, helburua baino, "itsasargia" dela. Horri begi-

## Sorreran zehaztutako helburuak betetzen ari direla adierazi dute Kontseiluko kideek. Hala ere, argi dute Aiaraldea euskaldun bihurtzea, helburua baino, proiektuaren "itsasargia" dela

ra Euskalgintza Kontseilua "potentzial handiko" tresna dela diote. "Euskararen normalizazioaren bidean indarrak batu eta elkarlana sustatzeko gune bat sortzea genuen helburu", azaldu dute. "Bide onean goaz,



Egitasmo ugari egin ditu Aiaraldeko Euskalgintzarekin kontseiluak hiru urtetan. Jon Catalan eta Bego Guillen

2016

Otsaila

Maiatza

Ekaina

2016ko otsailaren 12an jaio zen ofizialki Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua, aurretik "inurri lan asko" egon zen arren. 42 eragilek hartzen dute parte sorreratik

Eskualdeko hamar erakunde publikok lankidetzak akordioa sinatu zuten, udaletako euskara arloko elkarlana sustatzeko



Udako kanpaina abiatu zuten, Kontseilua ezagutzera eman eta euskara sustatzeko helburuarekin

**ZURE LOTERIA ADMINISTRAZIOA LAUDIOKO HERRIGUNEAN****BERRIAK 09675****SIDENOR 58402****KIDER/KIME 36498****OSAKIDETZA 13303****ERROKE DEUNA  
ZAHAR EGOITZA 33576****GUARDIAN 88450****JEZ 11765****LAUDIOKO UDALA 09503****GOMETEGUI 09675****LAUDIO INSTITUTUA 04589**

Karmen kalea 1, LAUDIO 94 672 00 97 [www.loteriaselgordo.com](http://www.loteriaselgordo.com) [info@loteriaselgordo.com](mailto:info@loteriaselgordo.com)

**USHUAIA**

Dionisio Aldama, 20  
(Geltokiaren aurrean) AMURRIO  
Tel. 945 89 08 41

Asteartetik ostiralera: 9:30-19:00 (ez dugu eguerdian itxen) Larunbatak: 9:00-14:00etara

ILEAPAINDEGI MISTOA · HAURRAK · PERFUMERIA · OSAGARRIAK

**GABONETAKO MARRAZKI LEHIAKETA**

MARRAZTU EZAZU GABONETATIK GUSTUKOEN  
DUZUNA ETA SAR ZAITEZ 2019rako 6 ILE-MOZKE-  
TEN SORTA BATEN ETA OPARI BATEN ZOZKETAN.  
Kontsultatu baldintzak ileapaindegian

10 urte arteko haurrentzako lehiaketa.  
• Marrazkiak aurkezteko epea: urtarrilak 8

edertasuna - sauna - solarium

[Instagram](#) [Facebook](#) [Twitter](#) Ushuaia Peluquería & Estética/Perfumería



# ibilbidea

baina bidea luzea da. Orain artekoa erraza izan dela esan daiteke, denon borondate onarekin egin dugulako. Jendearen harre-  
ra lehen unetik izan da ona". Ia hiru urte beranduago Kontseilua bizirik jarraitzen duela nabarmendu dute, "indartu eta zabaltzea dagokio orain".

## Datorren urteko udal hauteskunderi begira, "Konpromiso esplizituak" eskatuko dizkiete alderdi politikoei

**Aurrera begirako egitasmoak**  
Orain Euskaraldiaren antolakuntzan murgilduak daude Euskalgintza Kontseiluko kideak, baina badakite jada zeri helduko dioten hamaika eguneko maratonia amaitzean. "Plangintza estrategikoa" osatzeari ekingo diote, hori izango dute lehentasun. "Lau urtera begira jarriko gara gure norabidea zehaztu eta energia nora bideratu erabakitzeko". Kontseiluko kideen presentzia esparru gehiagora zabaltzea nahi dute. "Une honetan hezkuntzaren munduan dugu presentzia handiena, ikastetxe guztietako ordezkariak baitaude Kontseiluan. Bestelako eremuetan, aldiz, ez dugu horrenbesteko era-

ginik. Dantza taldeak, mendi taldeak, gazte eragileak, enpresa mundua... alor ezberdinetara zabaltzea nahi dugu gure jarduna".

### Udal hauteskunderi so

2019ko maiatzean egingo diren udal-hauteskundeetan eragiteko asmoa du Euskalgintza Kontseiluak. "Alderdi politikoen programetan euskararen normalizazioarekiko konpromisoak egotea" bultzatuko dute. "Gaur egun talde politiko guztiek dute euskararen aldeko jarrera, baina konpromiso esplizituak bilatzera joko dugu". Era berean, eskualdeko erakunde publikoekin elkarlana sustatzen jarraituko dute.

Euskaldunen aktibazioan ere sakondu nahi dute, "eskualdean saretze lana indartuz". Arestian aipatutako Euskararen Agendari ere "astindua" eman nahi diote. "Tresna indartsua dela uste dugu. Baina, beste egitasmo batzuekin gertatzen den bezala, zailtasunak ditugu behar den tokira iristeko". Gauzak hala, agendaren "jasotzaileen kopurua" eta "eraginkortasuna" handitzeko asmoa dute.

Nabarmendu dutenez, euskararen normalizaziorako beharrezkoa da hitzunik euskaraz hitz egiteko aukerak eta "testuinguru egokiak" izatea. "Norabide horretan aurrera pausak emateko, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua tresna eraginkorra da".

## 42 eragile

- Orozkoko Erdu euskara batzordea
- Urduñako Herri Eskola
- Okondo Eskola
- Arrankudiaga Eskola
- Audio BHI Institutuko HNP taldea
- Aintzinako Andra Mari Ikastetxea
- Virgen Niña ikastetxea
- Erdu Gugaz guraso taldea
- Aiara Dantza Taldea
- Latorro Eskola
- Audioalde lanbide heziketa ikastetxea
- Orozkoko Eskola
- Etxaurren Ikastola
- Audioko Udal Euskaltegiko langileak
- La Milagrosa ikastetxea
- Amurrioko Pilota Elkartea
- Goikogane mendi taldea
- Aiarako Euzko Gaztedi (EGI)
- Audioko Gazte Asanblada
- Aiaraldeko Ernai
- Aiaraldeko Bertso Eskola (Aiebe)
- Aiarako LAB
- Aiarako ELA
- Aiarako STEE-EILAS
- Nerbioi Errugby Taldea
- Lucas Rey Eskola
- Belaiki euskara elkarte
- Mendiko Lagunak mendi taldea
- Zaroabe institutua
- Arteko Gure Ama Eskola
- Lamuza Eskola
- Aiarako AEK
- Aiaraldeko Berbalagunak
- Aiaraldea Kooperatiba Elkartea
- Aresketa Ikastola
- Audio Ikastola
- Basalarrina Euskaltzaleen Topagunea
- Zabaleko Eskola
- Audioar Txirrindulari Elkartea
- Aiarako Hogeitalau elkarte



2016ko abenduaren 3an Amurrioren eginikoa da euskararen alde eskualdean egin den

## Azaroa

Aiaraldeko Euskararen Agenda sortu zuen Kontseiluak, euskaraz egiten diren ekintzak indartzeko



## Abendua

Ehunka lagunek egin zuten bat Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta eginiko kanpainarekin



"Euskararen etorkizuna" urratzeko gogoeta jardunaldia antolatu zuen Kontseiluak Amurrioren

## 53. DURANGOKO AZOKA

2018ko abenduaren 5etik 9ra

**DA! ASKO DIRA**

[www.durangokoazoka.eus](http://www.durangokoazoka.eus)





# ibilbidea



ekimen jendetsuenetarikoa. Iaz Urduñan eginikoak ez zuen marka berdintzea lortu, baina jende andana bertaratu zen hirira. Jon Catalan eta Aiaraldea.eus

## 2017

## Uztaila

## Abendua

Korrikaren XX. edizioak milaka lagun mobilizatu zituen Aiaraldean barrena. Euskaingintza Kontseiluak bat egin zuen ekimenarekin

Kanpaina berriaren protagonistak aurkeztu ziren: ahobizi eta belarriprest. Udako jaietan presentzia handia izan zuten bi pertsonaiek



4.500 lagunek hartu zuten parte ahobizi eta belarripresten dinamikan. Urduñan egin zuten dinamikaren amaiera ekitaldia, abenduaren 3an

**Konpromisoa**  
gure lurrarekin,  
eta gure hizkuntzarekin







# euskararen agenda

2018/11/28  
2018/12/03



## Egun osoko egitaraua

Euskaraldiari agur esateko, Laudion

Egun osoko egitaraua antolatu du Aiaraaldeko Euskalgintza Kontseiluak Laudion. Festa erraldoi batekin esango diote agur Euskaraldiari. Milaka Ahozibizi eta Belarriprest elkartuko dira Laudio Plazan euskaraz bizitako 11 egunak borobiltzeko.

"Inoizko herri bazkaririk handiena" Eskualdean inoiz egindako herri bazkaririk jendetsuena antolatzea, erronka hori jarri diote euren buruei egunaren antolaketan dabilzate-nek. Aldai Plazan izango da bazkaria, 14:30ean. Ehunka lagun elkartuko dira bertan, eskualde osoko 41 puntutan egongo da bazkariko titularrak zuzendutako herritarrek zuzendutako

### Egitarau osoa



## OROZKO

**11.29 Osteguna**  
17:30 ESKOLAN  
**EUSKARAZ KONTU KONTARI**  
17:30ean Haur Hezkuntzako umeentzat  
18:00etan Lehen Hezkuntzako umeentzat

**11.30 Ostirala**  
19:00 DONIBANE ARETOAN  
**HITZALDIA: "OXIGENOA EUSKARARI 6.000 METROAN ERE"**  
Hitzaldiaren ostean (20:00ak aldera)  
**TRIKI-KANTU POTEOA**

**12.01 Larumbata**  
12:00 FRONTOIAN  
**BERTSO-PILOTA DESAFIOA**

## ARTZINIEGA

**11.30 Ostirala**  
GOIZEZ, ARTEKO GURE AMA HERRI IKASTETxean  
**UMEENTZAKO JOLAS ETA TAILERRAK**

**12.01 Larumbata**  
HERRIAN  
13:30 // **TRIKI-POTEOA** herriko tabernetatik, frontoitik hasita  
14:30 // **KANTU BAZKARIA** 100 laguntzako toki egongo da. Prezioa 8 eurokoa izango da, baina hamar urtetik beherako haurrek doan bazkaldu ahaliko dute. Tikitak udalarean azaroaren 29ra arte.  
17:00 // **ALTXORRAREN BILA** JOLASA gazteentzat, Gaztelekitik abiatuta  
18:00 // **DANTZA-PLAZA** Patxi Perez eta konpainia taldearekin, frontoian

## AMURRIO

**11.30 Ostirala**  
LABORAL KUTXAREN PAREAN

17:00-18:30 // **Euskal disko-festa eta Aspaltza elkartearen tailerrak eta puzgarriak**  
20:30-22:30 // **Nafarroa**

**12.01 Larumbata**  
19:00 KASINOAN  
**AURKEZPENA: "OXIGENOA EUSKARARI 6.000 METROAN ERE"**

**12.03 Astelehena**  
12:00 UDALETxean  
**EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA**

## URDUÑA

**12.03 Astelehena**  
FORU PLAZAN  
**EUSKARALDIAREN AMAIERA JAIA**  
16:30 // Kartoi-zko bandaren kalejira  
17:00 // Txokolatada  
18:00 // Puski, TxurruSKI eta Mariski (Klown emanaldi musikatua)  
ondoren **AMAIERA EKIMENA**

## ARRANKUDIAGA-ZOLLO

**11.30 Ostirala**  
ARRANKUDIAGAKO PLAZAN  
16:15 // Euskaraldiko koreografia  
16:30 // Txokolatada Ahozibizi eta Belarriprest panpinekin  
19:00 // Poteoa euskaraz

**12.01 Larumbata**  
ARRANKUDIAGA KO FRONTOIAN  
17:00 // **Pilota partidak: "Kamaraka ere Euskaraldiarekin bati!"**

**INFO +**  
aiaraldea.eus



AZAROA

30 22:00



tabeetan gerturatuko dira jaialdiaren epizentrotro izango den Laudio Herriko plazara.

Zutabeetara batzeko hitzordua 10:15ean jarri dute. Lau egongo dira guztira. Olarte zutabea Gardeako tren geltokian elkartuko da, eta Urduña, Luiaondo eta Gardeako herritarrek bertan batuko dira. Laudioko herritarren zutabea Larra zutabea izango da eta Latiooroko zentroen plazaatik abiatuko da Herriko plazara.

Okondo, Artziniaga, Aiara eta Ugarte auzoko herritarrek Ugarteko plazan dute zita, Goienurizutabearen elkarturik jaitisiko dira jai guraino. Azkenik, Areta zutabea Aretako Kultur Etxetik abiatuko da, bertan Arrankudiaga-Zo-

llo, Arakaldo, Orozko eta Aretako herritarrek parte hartuko dute. Zutabe guztiak 11:00etan abiatuko dira.

Zutabe guztiak Laudioko plazan elkartuko dira 11:30ean. Ongi etorri ekitaldiak jai-giroa piztuko du eta jarraian, 12:00etan, ekitaldi nagusia egingo dute. 12:30etik aurrera animaziorik ez da faltako. Laudio kaleetan, musika kalejira, buruhandiak, txosna eta beste hamaika ekimen egongo baitira plaza inguruan.

12:30ean ere, Berbodromo erraldoia jarriko da martxan eskualdeko ahobizi eta belarriprest guztiekin. Bertan 11 egunez euskaraz bizitzeko apustua egin duten herritarrek elkartu eta Euskaraldian norberak bizitako esperientziak kontatuko dizkiete elkarri.

keta erosteko aukera. Tikitak 5 euroko kostua izango du eta bi plater, ogia, edaria eta postrea barnebilduko ditu. Bazkarirako txartelak erosteko azken eguna azaroaren 29a izango da, osteguna. Tokiko produktuekin prestatuko dute otordua eta menuan aukera beganoa ere egongo da.

#### Arratsaldean, jaiak etenik ez

Bazkalostea ere ekintzaz beterik egongo da. Besteak beste, haurrentzako ekintza ugari egongo dira: ipuin kontalaria 15:30ean eta tailerak 16:00etatik aurrera. Nagusiagoek ere izango dute dibertitzeko tartea, 16:00etan Barry Manley-ren bakarrizketa umoretsuaz gozatzeko aukera izango baitute. 17:30ean txokolatea eta gaztain erreak banatuko dira.

Dantzetzeko grinak ere arratsaldeko tarte zabal bat hartuko du. 16:30ean "Dantzatloi Herrikoia" egingo dute. Bertan, eskualdeko hainbat dantza talderen eskutik eta Ziriki eta Miriki pailazoek aurkeztua, euskal dantzak, zumba edota areto dantza bezalako estiloak nahastuko dituzte. Erritmoarekin jarraitzeko, haurrentzako Diskotxantxa ikuskizuna egingo dute Ziririk eta Miririk.

Iluntzean herriko plazako kontzertuek hartuko dute jaiaren lekukoa. Ze Esateki ska talde gipuzkoarra izango da musika eska intzari hasiera ematearen arduraduna, 18:30ean. Ostean Lehian erromeriak girotuko du herriko plaza.



10:15 // Zutabeen hitzordua

11:00 // Zutabeen kalejirak  
Herriko plazaraino

11:30 // Ahobizi eta Belarriprestel ongi etorria egin

12:00 // Ekitaldi nagusia.

12:30 // Berbodromo erraldoia

13:00-14:30 // Animazio taldeak

Eguerdian, ekoizleen azoka, dantza taldeen emanikizuna eta kale animazioa Santa Luzia abesbatzarekin eta Arloteak taldearekin

14:30 // Herri bazkaria Aldai plazan. Tikitak erosteko epea azaroaren 29an amaituko da

16:00 // Bakarrizketa Barry Manleyrekin eta haurrentzako jolasak

16:30 // Dantzatloia

17:30 // Txokolatea, gaztaina erreka eta Disko-txantxa

18:00 // Kontzertuak: ZE ESATEKI + LEHIAN

21:00 // Jaiaren amaiera

kanta 1 aldaren kantukada herriko tabernetatik

12.03

**Astelehena**

HERRIAN  
17:00 // Aspaltza elkartearen tailerrak  
18:30 // Ekitaldia kandelen argipean  
Amurrioko Udalaren Euskaraldiaren I. Bideo Lehiaketako irabazleen proiektzioa  
Txokolate jana

## ARETA

11.29

**Osteguna**

19:00 NAGUSIEN ETXEAN  
MINTZODROMOA

11.30

**Ostirala**

18:30 // Zunba saioa  
19:00 // Pilota partidak

12.01

**Larumbata**

9:30 // Txangoa Urgosora Markel Iturrizarrekin, Kultur Etxetik abiatuta  
17:00 // Zinema umeentzako, Kultur Etxean

12.03

**Astelehena**

15:00 ESKOLAN  
EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA  
OSPATZEKO JAIA

## BARANBIO

12.01

**Larumbata**

GARRASTATXUN  
EUSKARAREN EGUNA  
10:00 // "Dianak"  
Garrastatxun  
10:10 // Mendi martxa  
14:30 // Bazkaria  
16:30 // Dantza plaza Ander eta Lander trikitilariekin  
18:30 // Irrintzi txapelketa

## LAUDIO

11.30

**Ostirala**

19:00 KASINOAN  
BERTSO-SAIOA  
Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Unai Agirre eta Nerea Ibarzabal. Izar Mendiguren Izango da gai-jartzailea. Sarrerak 3 euro baliko du. Tikitak udaletxean salgai azaroaren 29ra arte.

# Baranbion larunbatean egingo dute Euskararen Eguna



Larunbatean-abenduak 1- ospatuko dute Euskararen Eguna Baranbion. Egun osoko egitarau prestatu dute. 10:00etan dianak egingo dituzte Garrastatxun. Handik hamar minutura abiatuko da mendi martxa, inguruko hainbat paraje bisitatu dituen. 14:30ean herri bazkaria egingo dute baselizaren aurrean. Ander eta Lander trikitilariek girotuko dute bazkalostea eta irrintzi txapelketa egingo dute gero, 18:30ean, egunari amaiera emateko.

Egunaren antolatzaileek bat egin dute Euskaraldia dinamikarekin, eta ahobizi eta belarriprest "egunero" izateko deia luzatu diete herritarrei.

ukberri.net



## Bertso-saioa eta hitzaldia Kasinoan, euskararen alde

Bi ekintza esanguratsu egingo dituzte Laudioko Lamuza parkeko Kasinoan asteburu honetan. Ostiralean-azaroak 30- bertso-saioa egingo da Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Unai Agirre eta Nerea Ibarzabalekin. Sarrerak udaletxean eskuratu daitezke ostegunera arte, 3 euroren truke. Larunbatean, aldiz, hitzaldia eskainiko dute "Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere" espedizioiko kideek, 19:00etan.

Mortensen (rock bertsoiak)

## ABENDUA

1 22:00  
El sapo y el sello (rock bertsoiak)

7 22:30  
DJ-a

8 22:00  
Alberto Inunciaga (country)

15 20:00  
RÁ (bertsoiak)

21 22:00  
Frank Lee (pop-rock bertsoiak)

22 20:00  
Hotel Ruido (bertsoiak)

28 22:30  
DJ-a

29 22:00  
Charlie Cosh + Mikel Gaztañaga (rock bertsoiak)

2019

## URTARRILA

4 22:00  
Igor Arzuaga

5 13:30  
Traveler (jazz, bossa nova...) Kanpoko terrazan

11 22:00  
Taylor Box (duo akustikoa)

12 22:00  
Buskerground (rock bertsoiak)

Aldai enparantza, LAUDIO

672 23 50 65

www.tolobar.com



# OSASUN GIDA



## Neguan osasuna ez da etxean gordeta utzi behar

Garai delikatua da negua osasunarentzat. Urrian hasi zen gripearen bakuna jartzeko kanpaina, eta temperatura aldaketa bortitzek bestelako gaixotasunak agertzea ere erraztu dezakete. Hala ere, arazo gehienak erraz ekidin daitezke aholku simple batzuk jarraituta.



Neguko tenperatura baxuek eragina izan dezakete osasunean.

Tok-tok, ate-joka dugu negua. Osasunaren aldetik apur bat delikatua izan daiteke sasoi hau. Garai honetan agertzen dira katarro edo pneumonia kasu gehienak, eta gripea ere hor dago. Hala ere, arrisku gehienak erraz saihestu daitezke aholku bakan batzuk jarraituta. Lehen aholkua oso begien bistakoa dirudi: hotzetik babestea. Hala ere, adituek diote egun hotz batean hotzetik ez babestea bezain kaltegarria izan daitekeela behar baino beroki gehiago jarri eta izerdia botatzea. Bat bateko tenperatura aldaketak ekiditea gomendatzen dute. Komenigarria da, era berean, ur asko edatea, berogailuek gorputzaren hidratazioa txikitu dezaketelako. Onuragarria ere izan daiteke infusio edo saldak hartzea; ez soilik gorputza berotzeko balio dutelako, baita baporeek mukosak umeldu eta egoera onean mantentzen laguntzen dutelako ere. Mukosek sudur-zuloak eta eztarria babesten dituzte, pneumoniaren birusa sartzeko moduko arrakalak saihestuta.

Negua etxean egoteko garai bezala irudikatu ohi da. Hala ere, adituek diote gomendagarria dela ariketa fisikoa egiten jarraitzea eta, ahal dela, eguzkia egunero hartzea, gorputzak beharrezkoa duen D bitamina kopurua ekoitzi dezan.

### Urte berria, osasun hobea

Hilabete bat baino ez da falta 2019. urtea hasteko. Urte berriaren etorrera aukera aparta izan daiteke osasun ohitura batzuk aldatzeko: kirol gehiago egitea, dieta bati ekitea edo jateko ohitura osasuntsuagoi heltzea, besteak beste. Horretarako, baina, komenigarria izan daiteke aditu batengana jotzea. Aiaraldean eskaintza zabala dago, espezialista onekin. Eurengana jotzea gomendagarria izan daiteke urte berriko eronken zerrendan idatzitako hori paperean geratu ez dadin.

## FISIOTERAPIA

**goki**  
FISIOTERAPIA  
OSTEOPATIA

- Fisioterapia funtzioala · Osteopatia ·
- Drenaje linfatikoa · Hipopresiboak ·
- Amatasun prestaketa eta erdiondoa ·
- Etxez etxeko zerbitzua ·
- Elikadura inguruko jarraibideak ·

Maestro Elorza 1, Llodio - Laudio (tren- geltokitik hurbil)  
T 946 561 951 · M 605 446 628

HOTEL ORDUÑA PLAZA  
Balneario

**Fisioterapia**  
balneario@hotelordunaplaza.com

Ainhoa Uria Minguito  
945569038

- Fisioterapia
- Esku-terapia
- Ziztada lehorra
- Eskuzko drainatze linfatikoa (Vodder eta Godoy)
- Obstetrizia eta Uroginekologia
- Lurreko pilatesa

Foru Plaza, URDUÑA www.hotelordunaplaza.com

## PODOLOGIA

**Clínica Podológica Laudio**

Ikerne Rodríguez Unamuno  
Kol. Zerbakio 315

Karmen kalea, 15 - 1  
01400 Laudio  
T. 946 72 52 57

Elbarrientzako sarbidea

- Kiropodologia
- Ortopodologia
- Pertsonalizatutako ibilketaren ikerketa eta 3D barne-zolak
- Oin diabetiko tratamenduak
- Kirol - podologia
- Haur - podologia
- Kirurgia podologikoa
- Azazkalen berregite estetikoak



## ODONTOLOGIA



ZURE BETIKO DENTISTA  
ORAIN BABIO HORTZ KLINIKAN

Maialen Martínez Fombellida  
Ander Martínez Fombellida

- Odontologia orokorra
- Inplanteak
- Ortodontzia
- Estetika

Dionisio Aldama kalea 2 (Amurrio) 945 068 996



### Montes Otaola

Clinica dental

Dentistari lotutako antsietate  
eta beldurretan adituak

25 urteko esperientziadun inplante-taldea



- Zimurren betetzea
- Profilatzea
- Ezpainen handitzea
- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Inplanteak
- Erradiologia

Herriko Plaza, 3 01400 Laudio T. 94 672 06 93



1945. urtetik Laudion zurekin

ONDONTOLOGIA GENERALA  
INPLANTEAK  
PROTESIS MUGIKORRAK ETA  
FINKOAK  
PERIODONTZIA  
ORTODONTZIA  
PADI...

ORDUTEGIA: 09:00-13:00 / 15:00-19:00  
OSTIRALETAN 09:00-13:00

KARMEN KALEA, 13 (BEHEA)  
LAUDIO (ARABA)

946 72 31 00

## LOGOPEDIA

Clínica Dental Orozko

\*Eguerdietan irekita

- ✓ ORTODONTZIA
- ✓ INPLANTEAK ETA PROTESIAK
- ✓ PADI
- ✓ ODONTOLOGIA OROKORRA
- ✓ ZURE NEURRIRAKO FINANTZIAZIOA
- ✓ ORTODONTZIA SUSTAPENA URTEA AMAITU ARTE

Lehendakari Agirre plaza 8, OROZKO

94 661 04 19  
688 67 86 04

hitza logopedia

bai

- Urteak / Nagusiak
- Ikastetxeekin harremanak
- Gurasoentzako orientazioa
- Tailerrak (irakurketa, hizkuntza...)
- Fisioterapia pediatrikoa
- Psikologia
- Arreta goiztiarra (0-6 urte bitartekoa)
- Errendimendu Altuko Taldeak (GAR)
- INTERAC-ekin lankidetzta: gaitasun intelektiko handiko neska/mutikoen detekzioa eta arreta

EVA ALONSO LARRAZABAL  
LOGOPEDA ETA PEDAGOGOIA

eba\_alonso@hotmail.com  
Karmen kalea 39, 01400 LAUDIO  
Tel.: 94 672 63 91 / 665 74 27 22

OREKA

ZERBITZUAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

- Arreta goiztiarra
- Logopedia
- Terapia Psikomotorra
- Laguntza Pedagogikoa
- Haur, nagusi, famili eta bikoteentzat laguntza psikologikoa
- Pediatria-fisioterapia

urte berri on!

Jose Matia kalea 6, behea (Laudio)  
688 69 41 16 oreka@gmx.es

## KIROL - GUNEAK

Mugitu!

MEYIRO SPORT GIMNASIOA

FITNESS  
MUSKULAZIOA  
CARDIOBOX  
ARTE MARTZIALAK  
MUGENDO

Boriñaur kalea 2-4 (Eroski aurrean), AMURRIO  
945 39 32 14 meyiro@mugendoeuskadi.com

Kiden

- ✓ PILATES
- ✓ GYROTONIC®
- ✓ GYROKINESIS®
- ✓ YAMUNA BODY ROLLING®
- ✓ YOGA
- ✓ HAURDUNALDI EREMUA
- ✓ ENTRENAMENDU PERTSONALIZATUAK ETA TERAPEUTIKOAK
- ✓ KARDIOBASKULARRAK

Zumalakarregi 41 behea, LAUDIO 94 672 80 51  
centro@kiden.eus www.kiden.eu

## ONGIZATE OSOA

Shihō

ONGIZATE OSOKO ZENTROA

- ✓ Kiromasajea
- ✓ Osteopatia
- ✓ Naturopatia
- ✓ Reiki

Izoria kalea 5, LAUDIO (Laudioalde alboan)  
Astelehenetik ostiralera 9:00 - 13:30 / 16:00 - 20:00  
@sihobienestar 697 65 67 20



# Aiaraldeko euskararen historia

## III. Atala: Euskararen eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza XIX. mendearen hasieran



**AKETZA MERINO**  
Historialaria

**A**urreko atalean aipatu genuenez, XVIII. mendearen bukaeran euskara zen hizkuntza nagusia Aiaraldeko ekialdean; mendebaldean, ordea, gaztelania. Dirudenez, eskualde osoan bi hizkuntzak elkarren ondoan bizi izan ziren luzaroan: nahiz eta gaztelania indartu, euskara ez zen guztiz desagertzen.

1803. urte inguruan Lorenzo Prestamerok *Pueblos de Álava por vicarías*-en Zuia, Urduña, Aiara, Orozko eta Tudelako Bikarriotzetako herriak euskaldunak zirela idatzi zuen eta horregatik alferrik izango zirela euskararik ez zekiten apaizak. Ziur aski Prestamerok euskararen garrantzia puztu zuen bere argudioak indartzeko; hau da, erregeak ezin zituela apaiz kanpotarrak izendatu herriarekin loturak zituztenen ordez.

Badaukagu Prestamerok garai horretan idatzitako beste dokumentu bat, Wilhem Von Humboldt jakitunari zuzendutakoa, hain zuzen. Pentsatzekoa da oraingo honetan informazioa ez zegoela baldintzaturik, ez baitzegoen horretarako motiborik. Dokumentu horretan, herriak kuadrillatan sailkatzen dira: Aiara-ko kuadrillan «se habla bascuence y se hace mayor uso del romance». Nola ulertu behar dugu esaldi hori? Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago mintzatzen zela? Edo gaztelaniaz lehen baino gehiago egiten zela? Arrastaria, Urkabustaiz, Artziniega eta Zuiaren kasuetan «bascuence y castellano» esaten da bakarrik. Garaiko beste autore batzuk bat datoz Prestamerorekin. Artziniega, Urduña, Zuia eta Aiara euskaldunak zirelakoan zegoen Eugene Coquebert de Montbret frantsesa. Eta Manuel Llano arabarrak Aiara eta Artziniegan herri guztietan euskara eta gaztelania egiten zirela idatzi zuen.

Beraz, euskaldunak eskualde osoan egotea posible bada ere, ezin da ezkutatu gaztelanarian presentzia: bi hizkuntzak elkarren ondoan bizitzen ziren. Aiaraldeko mendebaldean, euskara desagertzen ari zen belaunaldien arteko transmisioa etenda zegoelako. Baina hori ez zen bat-batean eta erabat gertatu, prozesua hasi zenetik azken euskaldunak desagertu ziren arte gutxienez hamar-kada batzuk igaro baitziren.

Agian, egoera horren eredu izan daiteke garai hartan Urduñan gertatzen ari zena. 1810ean, Independentzia Gerra garaian, Pierre Thouvenot gobernadore frantsesak Elizaren ondarea aztertzea agindu zuen. Horretarako, Urduñako udalak, besteak beste, hirian bizi ziren bederatzi apaiz erregeladunen zerrenda egin zuen. Batzuk Urduñan sortutakoak ziren eta hantxe zeuden, nahiz eta beste leku batzuetako fraide-etxeetan plaza eduki. Besteak Urduñako San Frantzisko fraide-etxean zeuden eta bizkaitarrak ziren ia guztiak.

Horiatariko bat Juan Zorroza zen, Morgakoa. Honek euskaraz

konfesatzeko Korrejidoreak eta Diputatu Nagusiak emandako baimena zeukan, hiriko apaiz euskaldun bakarra zelako. Lehenengo eta behin, datu horrek argi erakusten du Urduñan 1810. urtean eskaini egin behar zela euskaraz aitortzeko aukera. Bestela, zertarako izango zuen Zorrozak horretarako lizentzia? Garai hartan euskaldunak zeuden Urduñan, euskaldun elebakarrak gainera, elebidunak izan balira ez zatekeen apaiz euskaldunen beharrik egongo.

Gure ustez, fraide-etxean zeuden beste erlijioso batzuk ere, Durango ingurutik etorritakoak, euskaldunak izango ziren. Horrela, beste inork euskara ez zekiela esaten zenean, Urduñan ziharduten apaizak aipatzen ari zirela uste dugu. Nortzuk ziren horiek? Hirian hamalau benefiziodun zeuden baina hiru baino ez ziren ari apaiz edo parroko lanetan: Manuel Herran, Marcos Mendibil eta Rufino Gabiña urduñarrak. Beste lau benefiziodun hiritik kanpo zeuden eta kapilau batzuen bidez betetzen zituzten betebeharrak.

Bakarra ere ez zen euskalduna izango, testuaren arabera. Beste adibide bat daukagu: 1785ean eta 1787an bertan jaiotako Juan Pablo eta Canuto Olamendi apaizek, dirudenez, ez zekiten euskara. Aita Lendoñobeitikoa eta ama Luiaondokoa izan arren, bi anaiek ez zekiten euskaraz, ordurako ez zelako ohiko hizkuntza hirian; edo, erdi eta goi-mailako klaseko familietan, behintzat, erabiltzen ez zelako.

Orduan, nortzuk ziren Urduñan konfessore euskalduna behar zutenak? J. Sánchez Terradillosek bildutako dokumentu batean topatu dugu erantzuna: «había artesanos y jornaleros que se expresaban mal en castellano o lo ignoraban absolutamente». Baina, gure ustez, Urduñako euskaldun elebakar gehienak beste toki batzuetatik –Bizkaitik, Gipuzkoatik edo Aiaraldetik– etorritakoak izango ziren: hirian beti egon zen eskualde euskaldunetatik etorritako jendea.

Aipatutako Olamendi anaiek Luiaondon jardun zuten eta 1817. urte inguruan Aiara-ko Bikarioari gutun bat idatzi

zioten. Nahiz eta 1806an herrian bertan predikatzeko hizkuntza egokiena gaztelania zela agindu zen, oraindik kanpoko erlijiosoek euskaraz predikatzen zuten eta Olamendi anaiek ez zuten egoera hori onartu nahi euskaraz egiten zuten bakarrak kanpokoak zirelakoan. Haien arabera, gutxi batzuek esaten zuten gaztelaniarik ulertzen ez zutela eta gehiago ziren euskararik ez zekitenak.

Baliteke anaiek esandakoa erabateko egia ez izatea. Ikusi dugunez, ezin izan zuten herrian euskaldun elebakarrak zeudela ezkutatu. Ziur aski, euskarak atzera egin ahala, gero eta gehiago hedatuko zen gaztelania. Baina, hainbesteko zen? Agian, apaizek benetako egoera linguistikoa baino, haien desirak deskribatuko zituzten; hau da, elizan gaztelania bakarrik erabiltzeko nahia. Dena den, euskaldun eta erdaldun elebakarrak bizi ziren herrian aldi berean, eta hori garrantzitsua dela uste dugu. Berriro esango dugu galtze-prozesua hasi baino lehen ere, egoera hori uste genuena baino ohikoagoa izan behar zela.

Zergatik jartzen ditugu zalan-tzan apaizen hitzak? Luiaondon euskara osasuntsuago zegoela esaten dituzten datuak ditugulako. Adibidez, 1820 inguruan, Bizkaitik at zeuden herri euskaldunen artean aipatzen zen. Antzeko zerbait gertatu zen Okondon, Independentzia Gerra garaian. Apaiz bat kendu zuten kargutik euskararik ez zekiela, eta kargu gabetuak argudiatzen zuten herrian lau apaizetatik hiru erdaldunak zirela eta euskara ez zela beharrezkoa. Kontuan hartu behar dugu aipatutako bi herriak XIX. mendeko bigarren zatian oraindik erdi euskaldun moduan sailkatzen zituztela, Aiara-ko beste herriak ez bezala.





# EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA!

## ABENDUAK 3



### NATXO URKIXO

LAUDIOKO ALKATEA

“Lehendabizi Lasartek gonbidatu zituen ahobizi eta belarriprestak armairutik ateratzera; lotsa eta bazterkeriari aurre eginda, plazaratzeko gonbit zintzoa. Aurten Euskaraldia eta hamaika herritan, hamaika ahobizi eta belarriprest, hamaika egunetan euskaraz aritzeko gertu gara. Baina zenbat da hamaika? Kopuru mugaezina...”



### SERGIO TATO

OKONDOKO ALKATEA

“Euskararen Eguna gogoz ospatuko dugu Okondon. Aldarrikatzeko eta ondo pasatzeko eguna eta batez ere, gizarteak daukagun altxor preziatuenetariko bat zabaltzeko aukera paregabea. Euskara ohikoa izan behar da egunez egun, eta bidea egiteko “Euskaraldia: 11 egun euskaraz” ekimena martxan dago. Jar ezazu euskara zure bizitzan”



### JOSU SAN PEDRO

OROZKOKO ALKATEA

“Hemen dugu abenduaren 3a, berriro! Eta? Bete duzu iaz jarritako erronka? Nik konpromiso bat hartu nuen eta tinko eusten diot; ez diot inori “gatzelaniaz, mesedez” esango. Denok dugu euskaraz aritzeko eskubidea eta horren alde tinko egin behar dugu; erabiler ahalbidetu behar dugu, eta noski, erabili!”



### ITZIAR DUOANDIKOETXEA

ARRANKUDIAGA-ZOLLOKO ALKATEA

“Iaz, aukera berdinean, “eguneroko eta bizitza osorako gure hizkuntza EUSKARA izan dagigula” esanez amaitu neban. Gure artean, euskara gehiago erabili dogula nabaritu dogu? Badogu oraindik, arlo honetan, zer egin handia, ezta? Gure esaera zaharrak di-noan legez, “Ezina Ekinaz Egina”. Bide honetatik, ekinaz, jarraitu dagigun!”



### MAIDER BASTERRA

AIARAKO KUADRILLAKO PRESIDENTEA

“Izan zaitetz AHOBIZI edo BELLARRIPREST! Aiarako Kuadrillako bost herrietako kaleak jendez gainezka ikustea izango dugu helburu. Prest EUSKARALDIAz gozatzeko, programazio zabala ekintzez beterik ahalik eta ondoen disfrutatzen. Guztion lana da, herritarron lana baita instituzioen lana ere. Egunero delako Euskararen aldia!”



### JABI ASURMENDI

ARAKALDOKO ALKATEA

“Euskaraldia bertan da, lagun asko ilusioz betetzen gaituen ekimena. Txapa eta bere esangura soinean, gogoan, belarran eta ahoan eramateko aukera dugu, batzuk ahobizi, beste batzuk belarriprest, denok konplexurik gabe gure hizkuntza ohiturak aldatzeko gogoz eta 11 egun hauetako konpromisoari 365 egunetan eusteko asmoz”



### JOSUNE IRABIEN

AMURRIKO ALKATEA

“Euskaraldian eta urte osoan zehar euskararen erabilera sustatzea da gure asmoa. Ehundaka amurriar murgilduko gara Euskaraldian. Inauxa-Mubea eta Amurrioferr enpresek euskara planak diseinatuko dituzte. Esku bete lan dugu aurretik, baina hori da bidea. Ahobizi zein belarriprest guztien laguntzaz lortuko dugu!”



### IDOIA AGINAKO

URDUÑAKO ALKATEA

“Bigarren aldia dugu Aiaraldean Ahobizi eta Belarripresten ekimena! Iaz aho eta belarri de-xente atera genituen armairutik. Aurten eustea dagokigu, hizkuntza ohiturak aldatuz eta sendotuz. Ea pixkanaka uzten diogun lekua euskarari gure egunerokotasunean, 11 egun hauetatik harago!”



### GENTZA ALAMILLO

AIARAKO ALKATEA

“Xabier Amurizak sortutako abestiak zioen bezala, “Euskara da euskaldun egiten gaituena”. Egunerokoan naturaltasunez erabiltzea, erabateko normalizazio baterako prozesuan oztopoak gainditzea eta belaunaldi berrietan gure hizkuntza errotzea dira gure konpromisoaren oinarri. Hortaz: atzo, gaur eta beti, euskara jalgi hadi mundura!”



# Analisia

## Hamabigarren eguna



**AIMAR GUTIERREZ BIDARTE**

**E**rronka potoloa ekarri digu Euskaraldiak, 11 egunez euskaraz bizitzeko erronka. Horretarako baliabideak ere jarri dizkigu eskura, 2018. urtean oraindik ere malkartsua den misio hori aurrera ateratzeko. Baliabide eta tresna horien artean daude ahobizi eta belarriprestak, norberaren neurria eraikiak, 11 egunez bada ere, gure euskalduntasuna normalitate osoz bizitzeko lain.

Dinamika ezaguna zaigu gurean, erronka beretsuari heldu genion aiaraldearrok duela urtebete. Ahobizi eta belarriprestak hilabetez bete zuten eskualdea Lasarte-Oriako eta beste herri batzuetako esperientziari jarraiki. Aurtengoa jauzi nazionala izan da, eskualdeetako tokikotasunetik Euskal Herriko egitasmoa bilakatu da ahobiziak eta belarriprestak lanean jartzea.

Funtsean, estatistikek paper gainean erakusten duten datu oso esanguratsu bat azaleratzera dator dinamika: Euskal Herrian uste duguna baino jende gehiagok ulertzen duela Euskara. Aiaraldean, euskaldun eta elebidunak batuta, biztanleriaren erdiak du euskara ulertzeko gaitasuna.

Bizi dugun diglosia gainditu eta beldurrik gabe euskaraz bizitzeko babesa eskaintzen digu Euskaraldiak. Pentsa, aiaraldearrok %50arekin komunikatu gaitzke euskaraz. Eguneko elkarrizketen zer ehuneko hasten ditugu euskaraz? Jolas eremua eraldatzera dator Euskaraldia.

4.500. Horiek dira iaz Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak bultzatutako Ahobizi-Belarriprest dinamikako partaideak. Eskualdeko biztanleen %20ak parte hartu zuen bertan. Eskualdeko errealitate linguistikotik urrun egonda ere, parte hartze nabaria izan zen iazkoa, ez dira ugarriak Aiaraldean hainbeste herritar elkartzen dituzten egitasmoak. Abenduaren 3an Urduñan ospatutako kanpaina amaierako jaiak orube emankorra jarri

zuen euskalgintzaren etorkizuneko erronkatzat.

Etorkizun hori iritsi da dagoeneko, Euskaraldia du izena. Eusko Jaurlaritzak beste hamaika erakunderen laguntza eta babesarekin antolatu du ekimena, makinaria guztia abiatuta, inoiz baino baliabide gehiago daude, eskualde batzuetan aurretik praktikan jarritako esperientziak Euskal Herriaren neurriko dimentsioa har dezaten.

Konparazioak atseginak ez diren arren, aurten parte hartzea murriztagoa izan da eskualdean. Ariketa ez dugu kuantitatiboki baloratu behar, ez baita gutxi ehunka pertsonen euskararen aldeko apustu irmoa hartu izana. Hizkuntza ohiturak aldatzeko pausoa ezinbestekoa den arren, nahikoa al da euskara salbatzeko?

Kualitatiboki balora dezagun Euskaraldiak euskalgintzari eta euskarari eskaintzeko duena. Euskara erdigunean kokatzen du Euskaraldiak, 11 egunez bada ere euskara gure egunerokotasuneko ardatz bilakatuko du. Noren ardatz ordea? Norbanakoarena ala euskaraz bizi den komunitatearena?

Datu argigarri bat: EAEn ikasleek %66a baino gehiago dago D ereduan matrikulatuta eta azken urteetan gora egin duen eredu bakarra izan da (A eta B ereduaren aldean). Milaka gaztek jaso dituzte haur hezkuntzatik bigarren hezkuntzara bitarteko ikasketak ia euskara hutsean. Unibertsitate ikasketetan ere gora doaz euskarazko matrikulak. D ereduaren garapenak orain arteko martxarekin jarraituz gero, Aiaraldean biztanleriaren %50-60ak baino askoz gehiagok izango du euskara ulertzeko gaitasuna urte gutxi barru.

Kontrara, euskararen kaleko erabilera ez da hazi, edo behera jo du. Finean, D ereduak ez ditu euskararekiko atxikimendua duten gazteak hezten.

“Ahobizi” behar luketen belau-naldi berri horiek ez dira ahobizi. Txapa jartzeak ez du egoera irauliko. Arazoa ez baitago norbanakoarengan soilik, komunitate oso baten esku dago euskara. Komunitate horren biziraupenean datza euskararen biziraupena.

Euskaraldiak indibiduoan jartzen du fokoa, euskaradunaren gain; ez euskarak bizi duen

ekosistemaren gain, ezta honen ehun sozial, kultural eta instituzionalaren inplikazioen gain ere ez.

Abiada bizian datorren munduaren begirada globalizatua dakar Euskaraldiak. Izan zaitez ahobizi, belarriprest edo bide ertzetik begira dagoen behia, zure aukera da. Euskararen etorkizuna norbanakoaren esku soilik uzteak, mezu inplizitu bat dakar: indibiduoak du ardura eta erantzukizun guztia. Euskararekiko ulerkera neoliberal hutsa: XXI. mendean euskarak biziraun behar badu herritarren erabaki askeagatik izango da edo ez da izango; eta ez bada, onartu dezagun, mendebaldeko zibilizazio honen deriba baino ez da, Euskal Herri honen garapen logikoa mundu globalizatu batean.

Hizkuntza, ordea, ez da norbanakoaren kontua, komunitarioa da eta komunitatean bizi behar da.

Gure elebitasunean hizkuntza batek hartzen ez dituen funtzioak hartzen ditu besteak. Komunikaziotik haratago, errealitatea ulertzeko tresnak eskaintzen dizkigu hizkuntza batek, komunitate eta identitate bat gorpuzten ditu. Komunikatzeko tresna

huts gisa, hizkuntza baten etorkizunak honen iraungitzea dakar. Interneten, merkatu globallean, identitate mundialean eta 7 mila milioi biztanleko planeta honetan, nora goaz milioi eskas batek txapa baten beharrez darabilen hizkuntza batekin?

Indibiduoaren gain fokoa jartzea hizkuntza baten funtzio komunikatiboan fokoa jartzea da. Identitate global baten gailentzea gurearengainetik, globalizazioaren mesedetan. Berandu baino lehen euskal komunitatearen desagertzea onartzea. Munduko hiritar bihurtarazi nahi gaituzten heinean hobekiago genukeelako ingelesa edo gaztelania bezalako hizkuntza hedatuak erabiltzea. Eta bagabiltza, “Basque Country itzulua”, “MTV Music Week”, “San Sebastian Film Festival”... Izenok Euskaraldian parte hartzen duten erakundeek jarririk dira.

Horregatik, Amets Arzallusek ETBn Euskaraldiaren atarian esandakoen harira, eroso aurkitzen dira txapa soinean “euskararen heriotza diseinatu eta praktikatu zutenak”. Horregatik dararama VOX alderdiak ahobizi txapa, Euskaraldiak ez baitie inolako kontraesanik sortzen. Euskara ulertzen dugun Euskal Herritarren herenaren hizkuntza praktikak eraldatzea baino gehiago behar du izan euskararen etorkizuna. Euskararen etorkizunaren alde lerratzea status quo-a zailantzen jartzea da.


Hizkuntza bat ezin baita bizi dakitenek hitz egiten ez badute, “ahobizi” eta “belarriprestak” ez badarabilte, baina ezta ere hau bermatzen duen egiturarik gabe. Euskararen alde antolatzea eta honen ekosistema eraldatzea da txapa daramagunon ardura.

Bitartean, goza dezagun 11 egunez euskarari indarra emateaz, eta, hamabigarrenean ere jarrai dezagun mundu hau euskaraz eta euskaratik eraldatzen.





# Kutxabank **EUSKARALDIA**rekin



11 Egun euskaraz.  
Kutxabanken saiatzera goaz. Animatuko zara?



# lekukoa

Apirilaren 4an abiatuko da Korrikaren 21. edizioa Garestik, 14an Gasteizen amaitzeko. "Klika" izango da euskararen aldeko egitasmo erraldoi horren lema eta Txilardegi idazle eta pentsalaria izango da omendua, Euskara Batua sortu zenetik

50 urte igaro direla probestuta. Oraindik ez dute jakinarazi noiz igaroko den Korrika Aiaraldetik, baina laster ekimenari buruzko informazio gehiago plazaratuko dutela nabarmendu dute antolatzaileek.

## Euskararen aldeko hurrengo urratsa, klika batera



Eskualdeko ia herri guztiak zeharkatu zituen Korrikak duela bi urte. Milaka aiaralदारrek hartu zuten parte ekimenean. [Aiaraldea.eus](http://Aiaraldea.eus)



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Eta Euskaraldia amaituta, zer? Datorren urteko apirilean izango da euskararen aldeko hurrengo ekimen erraldoia: Korrikaren 21. edizioa. Plazaratu dituzte dagoeneko Euskal Herria goitik behera zeharkatuko duen egitasmo horren xehetasun ugari. Spota argitaratu dute, besteak beste. Bideo horren zati bat Amurrion grabatu zuten irailean, herriko hainbat bizilagunen parte hartzearekin.

### Apirilaren 4tik 14ra

Apirilaren 4an abiatuko da Korrika Garestik, 14an Gasteizen amaitzeko. "Klika" izango da lema. "Klika egitea aukera bat hartzea da, euskararen aukera hartzea,

hautua egitea", azaldu dute antolatzaileek, "Euskarak hurrengo fasea klikatu du: akzioarena, konpromisoarena; euskara unibertsal bihurtuko dugu, eta klik egingen du denon zeruan. Euskal Herriak hartu du euskararekiko kontzientzia, sortu du euskal komunitatea. Euskararen aroan gaude; orain da unea: etorri euskarara, aktibatu, erabakiak hartu, klik egin, euskaraz egin".

### Omendua, Txilardegi

Omendua, aldiz, Txilardegi izango da, euskara batuaren sorreraren 50. urteurrena probestuta. "Txillardegiren kezka nagusia zen aldarrikatzea herriak hizkuntza beharrezkoa duela eta Euskal Herriak euskara ezinbesteko ezauzgarria duela", azaldu dute AEKko kideek, "egundoko lana egin zuten,



**"Klika" izango da Korrikaren 21. edizioko lema. Euskara "fase berri batera" igaro dela adierazi nahi izan dute antolatzaileek hitz horrekin**

eta euskaldunon historian egin den gauzarik inportanteena ziur aski Txillardegiri zor diogu".

Oraindik xehetasun asko daude iragartzeke: ibilbidearen non-

dik norakoak, ikasteentzako unitate didaktikoa, abestia... Korrika.eus atarian emango dute informazio guztiaren berri datozen aste eta hilabeteetan.

etxaurre

higiezin agentzia

- Pisuak
- Txaletak
- Lokalak
- Lursailak
- Balioespenak



94 672 85 50

BEZEROARENTZAKO ARRETA

Zumalakarregi 38  
01400 Laudio



# Herriko plaza



## Claudia

Zorionak laztana! Segi horren jator eta alai polit! Bihotz bihotzez

Leire, Arrate eta Elur



## Ahobizi eta belarriprestak!

Zorionak ahobizi eta belarripresten txapak jarri eta 11 egun hauetan euskaraz bizitzeari ekin diozuen guztiei! Animo pilo azken txanpa honetan eta gogoratu hamabigarren egunean ere konpromisoari eusteaz!


Aiaraldeko Euskaraldia



**BIDALI  
ZURE  
ZORION  
AGURRA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Abenduaren 12an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

## Denborapasak

	Narrasti mota	Baldarra	Sarrera	Irenduak
	Landare handi	Era horretakoa	Gizon izena	
IZENA				
Ildoak				
DEITURA	Nafarroako udalerria	Fruitu mota	Bi ken bat	
Ahul, getxo	Arazo ezta-badauak	Nitrogenoa	Aitzina	
		Einstenioa	Ez eme	
		Argona	Jatorri atzikiak	
Curo planeta		Minberakua		
Hozibidea		Nire		
			Ardi, hitz elkartzeetan	
			Joan den urtean	
Nuen, haiei		Amuko		
Edaria		Kilogramo, laburrean		
			Bi bokal, herri bat	
			Bokala	
Alderdi kartista		Ez gezak		

❖ Errugbilari amurriarra

### ERRAZA

			5	4	3	7	9
	3	4	6	2	9	1	
						6	3
6		2		4	3		
3	4	2			5	8	
			8		6	2	4
9	3	7	5			4	
4	7	8		9	6	3	
2		4	3				7

			6	5			
	5	3	4		8		
					3	2	
4	9	7				5	
	7		5				
3	2			4	8	6	
8	6	5		7	4		
	4			3	9		
		4	7	6	2		

### ZAILA

		8					
			3			9	4
3	6						8
		5		4			
			8				2
4			7				
	4			5	7		9
9	7	8				5	
5		6					3

	8		3		6		
9		6		4		7	
			9				5
	5						
6	2	7					
	9					8	4
2						7	
4			7				3
		2	1				

### DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



## Lan-eskaintzak

- ZONALDEKO LAN HARREMANEN MANAGERRA (Araba)
- ADMINISTRARIA (Laudio)
- ADMINISTRARIA (Laudio)
- OBRA ARDURADUNA (Laudio)
- ELEKTRIKARIA (Laudio)
- ZERBITZARI LAGUNTZAILEA (Laudio)
- KOMERTZIALA (Laudio)
- LANGILEA IMEGAR ENPRESAN (Laudio)
- BILTEGI LANGILEA (Laudio) %33ko desgaitasuna izatea beharrezkoa da
- LANGILEA (Aiar)
- GARABI GIDARIA (Aiar)
- TRAILER GIDARIA (Amurrio)

LAN-ESKAINZA GEHIAGO AIARALDEA.EUS ATARIAN

## Zozketa

### “PUNTU EUS” PROIEKTUAREN 4 POLTSA LOTE



#### ZAKU BAKOITZEAN:

- Puntu.eus poltsa
- Boga garagardoa
- Gorrotxategiko teilak
- Zituene pasta ekologikoa

Aiaraldea hedabideak “Puntu.eus” proiektuaren 4 poltsa lote zozketatuko ditu erabiltzaileen artean

**Zozketa data:** azaroaren 30a, 12:00etan.



# Aiaraldea txiki

## IKASKIDE gaiztoa

Maripurtzili istorio beldurgarriak kontatzen dizkio ikaskide batek, eta horregatik, amesgaiztoak izaten ditu gauero. Zein da lagun hori? Horra: Ez du ezer gorririk. Ez da jaten edo janarian pentsatzen ari. Ez dago kirola egiteko jantzita. Bere ilea ez da iluna. Apaina da. Ezpainetako arrosa eta botoiak gustatzen zaizkio.



### Itzala


Begiraozu txokolatezko tarta beldurgarri honi. Halloween egunerako aproposa, ezta? Zein da bere itzal zuzena?



## Emaitzak







# DOMINOAN

Marratzu fitxetan falta diren irudiak, domino lerroa zuzena izan dadin.

Garezurra

Mamua

Kuia

Hilarria


Enborra

Saguzarra



# Kontra

## Aiaraldetik mundura



### Lorea Ibañez Rodríguez

JAIOTERRIA  
**AMURRIO (1987)**

BIZILEKUA  
**PARIS**

BIDAIAREN XEDEA  
**IKASKETAK ETA LANA**

## FRANTZIA



### DESKRIBAPENA

Historia luzea duen herrialdea da frantzia. XVIII. mendetik aurrera monarkia eta errepublika segida egon ziren herrialdean. Gaur egun errepublika erdi-presidentialista da.

### AZALERA

640.679 kilometro koadro.

### BIZTANLEAK

66,6 milioi biztanle.

### HIZKUNTZA

Frantsesa da hizkuntza ofiziala. Beste hainbat hizkuntza hitz egiten dira (euskara kasu), baina ez dute errekonozimendu ofizialik.

### Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarte  
**Tirada:** 10.000 ale.  
**Maiztasuna:** Hamabostekaria  
**Lege gordailua:** BI-1230-2013  
**Posta elektronikoa:** egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus agurrak@aiaraldea.eus  
**Publizitatea:** publizitatea@komunika.eus  
**Tifnoa:** 688 62 53 94  
**Helbidea:** Nerbioi Kalea 12, behea. Laudio. Araba. 01400  
**Telefonoak:** 94 656 85 54/688 62 59 00  
**Web-gunea:** www.aiaraldea.eus  
**ERREDAKZIO OHARRA:** Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

### ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Xabier Ugalde Gulias, Jabi Asurmendi Sainz, Unai Llano Anda, Eider Solatxi, Alberto Martínez Gutierrez-Barquin, Ali Orue Del Valle, Garrastatxu Landaluze Okeranza, Genma Corbella Eguilez, Unai Vicente Basterra, Estibaliz Bideguren Otaola, Aitor Fernández de Pinedo, Endika Arribas Gulias eta Eunate Molinuevo Olabarria

## “Parisen belarriprest gehiago dago ahobiziak baino”

### Nolatan amaitu duzu Parisen bizitzen?

Badira jada 6 urte etorri nintzela karrera amaierako proiektua egitera. Hasiera batean 6 hilabetetarako zen, oso gustora aritu nintzen eta proiektua amaitu ondoren praktikak hirian egitea erabaki nuen beste 6 hilabetez. Hori guztia bukatu ondoren, Euskal Herrira bueltatu eta lan bila hastea pentsatu nuen, baina garai hartan ez zegoen lan eskaintza askorik. Hortaz, Parisera lan bila bueltatzea erabaki nuen. Denbora arinegi pasatzen da, jada badira 6 urte hemen bizi naizela... Gauza asko ikasten dira atzerrian, baina beno, herria ez dut sekula ahazten eta ahal dudan guztietan etxera bueltatzen naiz.

Euskal Etxera joatea erabaki nuen behin Parisen epe luzerako arituko nintzela ikusi nuenean. Hasieran dantza taldean nenbilen bakarrik. Orain, ordea,...

tura ekitaldi batzordean nago. Etxe hori nire “ihes-hodia” dela aitortu behar dut.

Parisko euskal komunitatearen parte izateak harrotasuna sorrazten dit pertsonalki. Paris oso hiri handia da, kosmopolita eta irekia, baina ez dut zalantzan jartzten gutariko bakoitzaren lan giroan euskaldun bat dagoela dakitela. Gure kultura atzerrian zabaltea asko gustatzen zaigu Euskal Etxekoei, eta sarritan gure inguruan daudenak euskal kulturaren murgiltzen saiatzen gara. Euskarari dagokionez, euskal etxeko bazkideen artean, zaharrek (70-90 urtekoek) zein gazteek hitz egiten dute euskaraz. Horrek esan nahi du tartean dauden belaunaldi batzuek euskara galdu dutela eta orain ikasten ari direla. Gazte zein zaharrek biltzen diren ekitaldietan, euskara sarritan entzuten da. Dena den, momentuz, frantsesa lehen hizkun-

tza dela onartu behar dut. “Ranking”a honako hau da: Frantseza, Euskera, Gaztelera, Ingelesa.

### Euskaraldiaren kanpainan parte hartuko duzue?

Gutariko batzuk Euskal Herriko Euskaraldian parte hartuko dugu. Horrez gain, Sorbonan ere euskarazko klaseak egiten dituen hizkuntzalari talde batek euskaraldi txiki bat egingo du. Euskal Etxeak, ordea, Euskaraldiaren kontzeptua urte guztian zehar zabaltzeko ideia du. Hau da, 11 egunetan ez dugu ekitaldi berezirik egingo. Aldiz, ekintzaren bat egingo denean belarriprest eta ahobizi txapak aterako ditugu.

### Ahobiziak edo belarriprestak, zer daude gehiago Parisen?

Belarriprest gehiago daude ahobiziak baino. Esan bezala, euskaraz ikasten ari diren belaunaldi batzuk daude. 200 bat lagun izan-

go dira. Ahobiziak, ordea, horien erdia dira. Ahobizien artean normalean euskaraz aritzen gara elkarrekin. Gainera, bakoitzak bere euskalkia dauka eta benetan ederra da nola aritzen garen euskaraz, zaharrek zein gazteek. Zoragarria benetan!

Belarriprestei dagokionez, oso ohitura ona daukate guztiek, beraien lehen hitza beti euskaraz delako: “Egun on”, “ongi”, “hunsa”, “aio”... Ondoren, noizean behin euskal esaldiren bat edota hitzen bat esaten ahalegintzen dira. Euskal Etxean oso barneratuta dugun kontzeptua da azken hori. Hortaz, gure erronka Euskaraldia urte guztiko ekitaldi guztietan egitea izango litzateke. Txapak eta materiala Euskal Herritik ekarriko ditugu plangintza eta kontzeptua azaltzeko. Ondoren, euskarari bultzada sendoa ematea izango da xedea.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

